

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	IKUS-ENTZUNEZKO LANEN PRODUKZIORAKO GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA (zeharkakoa)	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0359		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Telebistako produkzioko laguntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Telebistako ekoizpen-baliabideen kudeaketa	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Telebistako produkzioko baliabide teknikoaren eta materialen kudeaketa	Iraupena	70
	Telebistako produkzioko baliabide ekonomikoaren kudeaketa		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0208_3 TELEBISTAKO EKOIZPEN-BALIABIDEAK KUDEATZEA gaitasun-atalarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ikus-entzunezko produkzioan erabiltzen diren lan-kontratuak deskribatzea.

E1.1 Ikus-entzunezko industriarekin erlazionaturako hitzarmen kolektiboaren alderdi garrantzitsuenak laburbiltzea.

E1.2 Ikus-entzunezko produkzio-sektorean indarrean dauden lan-kontratu ohikoaren funtsezko ezaugarriak ezagutzeko, eta alde garrantzitsuenak zehazteko: baldintzak, iraupena, formalizatzeko izapideak, diru-laguntzen izapideak eta salbuespenak, hala dagokionean.

E1.3 Proiektu espezifiko baten ezaugarrietarako eta aurrekonturako egokienak diren kontratu-moten aukeraketa arrazoitzea.

E1.4 Hainbat motatako kontratuak (teknikariak eta artistak) dituzten alderdi garrantzitsuenak identifikatzea, eta klausulak interpretatzea.

A2: Ikus-entzunezko produkzioan esku hartzen duten giza baliabideak identifikatzeko eta kudeatzeko prozesuak aztertzea.

E2.1 Giza baliabideak (teknikariak eta artistak) aurkitzeko, aukeratzeko eta kontratatzeko prozesuak deskribatzea.

E2.2 Langileak aukeratzeko eta kontratatzen esku hartzen duten enpresak eta egin behar diren kudeaketak deskribatzea.

E2.3 Produkzio baten dokumentuetatik abiatuz (gidoia, lanerako plana eta aurrekontua):

- Aktore-beharrak identifikatzea, artisten agentziekin edo ordezkariarekin negoziatzeko casting baten ezaugarriak.
- Langile tekniko eta artistikoen kontratu tipoa betetzea.

Edukiak

1. Ikus-entzunezko sektoreko lan-harremanen arauaketa

- Hitzarmen kolektiboak.
 - Ikus-entzunezko produkzioaren industriako hitzarmen kolektiboak.
 - Ikus-entzunezko lanen produktoreen eta aktoreen arteko lan-harremanak arautzeko hitzarmen kolektiboak.

2. Langileak aukeratzeko prozesua

- Teknikariak aukeraketa.
- Artistak aukeraketa:
 - castinga.
- Artistak kontratatzeko enpresak eta lanpostu-agentziak:
 - Kanpoko enpresa laguntzaileen tipologia.
 - Hitzarmenaren negoziazioa kanpo-enprekin.
 - Langileen kontratuen negoziazioa.

3. Langileen kontratazioa

- Sektoreko kontratazio-forma ohikoaren ezaugarriak:
 - Baldintzak.
 - Iraupena
 - Formalizatzeko izapideak.
 - Diru-laguntzak.

- Salbuespenak.
 - Proiektu espezifiko baterako egokienak diren kontratuen justifikazioa.
 - Klausulen interpretazioa.
 - Soldata-orrien eta gizarte-aseguruen ezaugarriak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Telebistako produkzioko laguntza